

WEBGUNEAN EDO ONLINE BANKAN AUTO- ETA/EDO ETXE-ASEGURU BATEN AURREKONTUA EGITEN DUTEN BEZEROEN ARTEKO ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea eta zozketan parte hartzeko eguna:

Caja Laboral Popular S. COOP. sozietateak –aurrerantzean LABORAL Kutxa–, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) –Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500– duenak, 3 zozketa egingo ditu, sustapen baten barruan, eta 2 iPhone 11 zozkatuko ditu zozketa bakoitzean.

LABORAL Kutxaren 18 urtetik gorako bezeroek hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2020ko maiatzaren 4tik abenduaren 31ra bitartean auto- eta/edo etxe-aseguru baten aurrekontua egiten badute LABORAL Kutxaren webgunearen edo Online Bankaren bidez.

2.- Doakoa:

Zozketak doakoak izango dira. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketetan parte hartzeko legitimazioa:

LABORAL Kutxako bezeroek hartuko dute parte zozketetan, baldin eta LABORAL Kutxaren webgunean edo Online Bankan auto-aseguruaren edo etxe-aseguruaren aurrekontua egin eta GORDETZEN badute.

1. zozketa: 2020ko maiatzaren 1etik uztailaren 31ra bitartean egiten diren proiektuetarako.
2. zozketa: 2020ko abuztuaren 1etik urriaren 30era bitartean egiten diren proiektuetarako.
3. zozketa: 2020ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten diren proiektuetarako.

Gehienez 2 auto-asegururen eta 2 etxe-asegururen aurrekontuak egin ahal izango dira NAN bakoitzeko.

LABORAL Kutxaren webgunean egiten diren aurrekontuak GORDETZEKO, honako hau egin behar da: BIDALI AURREKONTUA botoia sakatu eta inprimakia bete eskatutako datuekin.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxaren webgunea edo Online Banka ez diren beste kanal batzuen bidez egiten diren proiektuak eta LABORAL Kutxako langileak zein zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak. Irabazleak egunean eta positiboan izan behar ditu entitatearekin kontrataturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

4.- Zozketak:

1. zozketaren eguna: 2020ko irailaren 1a.
2. zozketaren eguna: 2020ko azaroaren 15a.
3. zozketaren eguna: 2021eko urtarrilaren 15a.

Zozketan iPhone 11 smartphone bana eskuratuko duten 2 irabazleen izenak aterako dira, baita ordezkio 5 izen ere, badaezpada, irabazleek baldintzak betetzen ez badituzte ere. 10 egun baliaduneko epean saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkioarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz. Saria inpersonala eta besterengarria da.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua:

Saria: iPhone 11 modeloko smartphone bat. Saria ezin da aldatu beste batzuekin edo haren diruzko balioarekin. Bezero saridunak ezingo du iPhone 11ren kolorea aukeratu.

6.- Sariaren zerga-sistema:

Saria indarreko legerian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergen alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

7.- Irudi-eskubideak lagatzea:

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Bestela, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkioari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea:

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Era berean, zozketatik kanpo utzi ahal izango ditu zozketaren emaitzak fede gaiztoz aldarazten saiatzen diren pertsonak. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.

Aseguru hauen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetako operadore lotetsia. Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearrekin. Arriskuaren aseguratzailerak: Seguros Lagun Aro SA eta Seguros Lagun Aro Vida SA. Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita dituzte, indarrean dagoen legeriaren arabera. Gainerako aseguratzailerak ikusteko, kontsultatu hemen: www.asegurualaboralkutxa.eus.